



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abuztuaren 27a

97. ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A :

**Galderak:**

- Galdera, Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, errenta bermatuaren jasotzaileei Estatuak ordaindutako diru-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Cidacos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, lurzoru urbanizaezinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak duen protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

- Galdera, desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, AgoraLan guneari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak galdera idatzia aurkeztu du (10-21/PES-00144), zeinean argibideak eskatzen baititu Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

- Gobernuak ba al dauka Nordex Accionak erakutsitako interes horren berri?

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan ez dago horri buruzko inongo dokumenturik edo espedienterik.

- Gobernuak ezagutzen al du Siemens Gamesak Agoitzen hartzen zituen instalazioetarako etorkizuneko proiekturik? Baiezkoan, proiektu horietakoren batek lanposturik sortuko al luke Agoitzen? Zenbat?

2020ko abuztuan Siemens Gamesaren Agoizko planta itxi zenetik, Nafarroako Gobernua eta multinazionala lanean ari dira instalazio horien etorkizun industrialaren alde. La isila egiten ari da palak birziklitzeko proiektu industrial baten inguruan. Proiektu hori oraindik aurreko fase batean dago (I+G) non elkarriketekin jarraitzen den bazkide teknologikoekin, dagoen teknologia aztertzeke, zein bazkide industrialekin, ekoizpen ereduaren balizko bideragarritasunari begira. Proiektua lerrokatuta dago Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin, energia berriztagarrien eta ekonomia zirkularraren aldeko apustuari dagokionez, eta helburua du Agoizko industria-instalazioetan jarduera berreskuratzea, zeinak eskualdean enplegua sortuko baitu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 16an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak 10-21/PES-00202 espedienteko galdera idatzia egin du Castillo de Javier hotelari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horri buruz ematen dion informazioa:

– Nafarroako Gobernuaren zein laguntza ekonomiko jaso ditu Iruñeko Castillo de Javier hotelak azken bost urte hauetan?

Honekin batera doa Castillo de Javier hotelak Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentutik azken bost urteotan jaso dituen laguntza ekonomikoen laburpen-taula.

– Pandemiaren ondorioak arintzeko Nafarroako Gobernuak gaitutako zuzeneko laguntzen paketearen onuradun izan al da?

Castillo de Javier hotel-establezimenduak laguntzak jaso ditu Nafarroako Gobernuak Turis-

mo eta Ostalaritza sektoreetarako egindako deialdien esparruan, COVID-19aren pandemiaren eragina arintzeko.

- 2020ko deialdian, 19.560,22 euroko laguntza jaso zuen.

- 2021eko deialdian, 11.206,02 euroko laguntza jaso du.

– Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik eskatu al du osasun- eta ekonomia-krisiaren ondorioz?

Castillo de Javier hotela kudeatzen duen enpresak, Ciaroba Gestión SLk, 2020ko apirilaren 3an ezinbesteko arrazoiagatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea aurkeztu zuen, martxoaren 19ko SND/257/2020 Aginduan eta Osasuneko kontseilariaren martxoaren 14ko 4/2020 Foru Aginduan (osasun publikoko jarraibide eta prebentzio neurriak hartzen dituen koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz) hotel-establezimenduei ezarritako murriztapenen ondorioz.

Osasun-murrizketek jarduerari erabat eragiten ziotelako alegatutako ezinbesteko kausa egiaztatu ondoren, 3 langile emakumezko eta langile gizonetako bati kontratua eteteko baimena eman zitzaizkien.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 25ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Ekitaldia	Espediente zenbakia	Zenbatekoa eurotan	Testua	Noiz ordaindu den	Zentro kudeatzailea	3. erreferentzia-gakoa
2018	CONTA 2018 0400003596	1.720,50	Q ziuertagiria lortzea eta hari eustea	2018/12/21	83130	G/830001/4709/432102 Enpresa txiki eta ertaintentzako dirulaguntzak, kalitate-ziuertagiriatarako
2019	CONTA 2019 0400002400	54,00	FAMPRESS ALEMANIA LOJAMENDUA	2019/12/04	83200	G/830002/2262/432102 Turismorako komunikazio- eta sustapen-programa (PET)
2019	CONTA 2019 0400003165	398,50	Q ziuertagiria lortzea eta hari eustea	2019/12/20	83130	G/830001/4709/432102 Enpresa txiki eta ertaintentzako dirulaguntzak, kalitate-ziuertagiriatarako (PET.M307)
2020	CONTA 2020 0400002320	19.560,22	Jarduerak etetea	2020/12/23	83130	G/830001/4709/432104 COVID-19a. TURISMOAREN ETA OSTALARITZAREN ARLOKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINTENTZAKO dirulaguntzak
2020	CONTA 2020 0400002334	814,50	Q ziuertagiriako dirulaguntza	2020/12/30	83130	G/830001/4709/432102 Turismoaren arloko enpresa txiki eta ertaintentzako dirulaguntzak Kalitate-ziuertagiria (PET.M307)
2021	CONTA 2021 0400000358	11.206,02	Jarduerak etetea	2021/04/12	83130	G/830001/4709/432104 COVID-19a. TURISMOAREN ETA OSTALARITZAREN ARLOKO ETE-ETARAKO dirulaguntzak

## Galdera, Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jabi Arakama Urtiaga jaunak Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 10-21-PES-00203 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2019/2020 eta 2020/2021 ikasturteetan honako hauek dira Tuterako HOHIPen matrikulatutako ikasleen datuak:

### TUTERAKO HELDUEN OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEKO PRESTAKUNTZA 2019-2020 IKASTURTEA (2019-2020ko amaierako oroitidazkiko datuak)

#### Lehentasunezko prestakuntza-jarduerak

	2 GAKO-GAITASUNAK	HASIERAKO IRAKASKUNTZAK	E/L 2	GEA	Mentor
HERRIAK	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula
TUTERA	19	44	202	31	2
MURCHANTE			38		
CASCANTE					
CORELLA			15		
CASTEJÓN			41		
ARGUEDAS			13		
VALTIERRA			25		
CADREITA			29		
CINTRUÉNIGO			54		
RIBAFORADA			56		
CORTES		21	16		
BUÑUEL		15			
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>	<b>80</b>	<b>489</b>	<b>31</b>	<b>2</b>
			<b>GUZTIRA</b>	<b>621</b>	

**Lanbide Heziketako jarduerak**

	INFORMATIKA	EUSKARA	INGELESA	FRANTSESA	PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK
HERRIAK	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula
TUTERA	196	55	95	77	32
MURCHANTE					
CASCANTE		21	15		18
CORELLA	26		25		22
CASTEJÓN		22			16
BUÑUEL					16
<b>GUZTIRA</b>	<b>222</b>	<b>98</b>	<b>135</b>	<b>77</b>	<b>104</b>
				<b>GUZTIRA</b>	<b>636</b>

**TUTERAKO HELDUEN OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASTETXEKO PRESTAKUNTZA 2020-2021 IKASTURTEA**

(2020-2021eko bigarren lauhilekoko datuak)

**Lehentasunezko prestakuntza-jarduerak**

	2 GAKO-GAITASUNAK	HASIERAKO IRAKASKUNTZAK	E/L 2	GEA	Mentor
HERRIAK	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula
TUTERA	54	14	238	27	2
MURCHANTE			38		
CASCANTE			40		
CORELLA			24		
CASTEJÓN			20		
ARGUEDAS			34		
VALTIERRA			29		
CADREITA			32		
CINTRUÉNIGO		19	36		
RIBAFORADA			29		
CORTES		8	19		
FITERO			21		
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>41</b>	<b>560</b>	<b>27</b>	<b>2</b>
			<b>GUZTIRA</b>	<b>684</b>	

**Lanbide Heziketako jarduerak**

	INFORMATIKA	EUSKARA	INGELESA	FRANTSESA	PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK
HERRIAK	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula	Matrikula
TUTERA	108	39	65	46	47
MURCHANTE			17		
CASCANTE		18	11		
CORELLA	14	27	25		
CASTEJÓN		24			
<b>GUZTIRA</b>	<b>122</b>	<b>108</b>	<b>118</b>	<b>46</b>	<b>47</b>
				<b>GUZTIRA</b>	<b>441</b>

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## **Galdera, Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak galdera idatzia egin du (2021/PES-00204) —106 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen, 2021eko otsailaren 24an—, jakin nahi baitu

Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan enpresaren itxiera berriki iragarri duen Vianako Defontaine Ibéricak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+B laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo gartzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Defontaine Ibérica enpresak aplikatutako dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, eskaera egin duen parlamentariak, hain zuzen ere, dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi ditu, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.



Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituen:

a) Dirua eman dadila onuradunen edo hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak xede izan dezala onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzat hartuko.

Hori dela eta, ohartarazten da erantzuna Defontaine Ibérica erakundeak aplikatutako onura fiskalak direla-eta eskatutako informazioaren buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitzakeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik erakunde horrek jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio-eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren

(hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikulua hori: "Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu".

Horrenbestez, lege-arauak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak isilpekoak direla, eta tributu-arloko xedeetarako baino ezin izanen direla erabili, hau da, zergak aplikatzeko baino ezin izanen direla erabili. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege-gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio-eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Defontaine Ibérica azken hamar urteetan aplikatutako zerga-onurei buruzko informaziorik eman.

Iruñean, 2021eko ekainaren 26an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **Galdera, azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 3ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galera egin du azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruz (10-21-PES-00205). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Basoberritzeko zenbat proiektu aurkeztu zaizkie Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari nahiz Gobernuako bestelakoei 2008tik hona, oihan azalera gutxitzea zekarten interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke proiektuekin batera?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ez du informaziorik azpiegituren proiektu bat interes orokorrekoa izateari edo ez izateari buruz; halatan, ezin da egin eskatzen den bezalako kuantifikazio sistematikorik, ez dakigulako zein proiekturi buruzkoa den.

Hala ere, egiaztatu ahal izan denez, gutxienez ere 2014. urteaz geroztik ez da basoberritzeko inongo proiekturik aurkeztu Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 23. artikulua araberako obra publikoaren balizko sustatzaileen aldetik.

Halaber adierazten ahal dugu, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpean diren azpiegituren proiektuei dagokienez, proiektu horiek berek jasotzen dituztela obrek ukitutako azalera landareztatzeke eta paisaiari egokitzeko planak, baina 13/1990 Legearen 23. artikulua hori aipatu gabe.

2.- Zeintzuk ziren proiektu horiek? Horien artean al zeuden Abiadura Handiko Trenaren obrak edo N-121-A errepidea 2+1 errepide bihurtzeko obrak egitekoak?

Galderak aipatzen duen N-121 errepidearen kasuan, N-121-A 2+1eko lehen bi tarteak egiteko proiektuek (I. tarte, 5+550-10+500 kilometro puntuen artean, eta II. tarte, 10+500-22+500 kilometro puntuen artean) jasoa dute dagokion landareztatzeke proiektua.

Abiadura Handiko Trenari dagokionez, adierazi behar da proiektu hori izapidetzeko eta egiteko eskumena Estatuko Administrazio Orokorrarena dela, eta Castejón-Iruñerria tarterako, obrak hasiak dituen bakarra baita, ingurumen-eraginaren adierazpena 2004koa dela. Dakigunez, ez da basoberritzeko inongo proiekturik aurkeztu aipatu 23. artikulua araberako.

3.- Gobernuak kalkulatu ala inbentarioa egin al du jakiteko zenbat zuhaitz moztu den Nafarroan 2008tik hona herri-lanak edo azpiegitura proiektuak egitearen ondorioz? Zenbat izan dira eta nola banatzen da mozketak hori?

Ez dakigu zenbat zuhaitz moztu den obra publikoak edo azpiegituren proiektuak egitearen ondorioz. Proiektu batek ukitzen dituen ondasunak eta zerbitzuak zehatzeko erabiltzen den unitatea da azalera neurtzekoa (hektareak) Hala ere, ez dago banakatuta baso azalera zuhaitzuna den edo ez; ukitutako zuhaitzak dira obra jakin baten aplikazio eremuan sartzen direnak.

4.- Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuari igortzeko Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketarik, basoberritze-proiektuak kontrol-tresnak hobetuz egiten direla bermatzeko?

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen oinarritzko helburuetako bat da "a) Ingurune naturala eta basoen baldintza ekologikoak zaindu eta hobetzea." Horiek horrela, bere artikuluetan helburu horiek jasotzen ditu, oihan administrazioaren esku-hartzearen menpe utzita, legean eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritako moduan, oihan lurretako jarduketak. Horien artean daude mendien aprobetxamendua, erabilera aldaketak, mendien gaineko menpekotzak eta okupa-

zioak eta mendietako birlandaketak eta lehengorazteak.

Adibidez, 48. artikulua honako hau dio:

“Oihan Administrazioak begiratuko du birlandaketen exekuzioa, espezieen hautaketa eta lan metodoak behar bezala egin daitezzen; eta bai proiektuak onesteko izapideak egitean, bai arestiko artikuluek aipatutako gainbegiratze tekniko edo ikuskaritzan zehar, egoki deritzen baldintza teknikoak, nahitaez bete beharko direnak, finkatu ahalko ditu.”

Horretarako, Basoak Kudeatzeko Atalari atxikitako teknikariek gain, Ingurumena Zaintzeko Ataleko langileak ditu, besteak beste honako eginkizun hauek betetzen dituztenak:

- Mendiak zaintzea, kontrolatzea eta babestea, bai eta mendietan egiten diren jarduerak ere.
- Basoberritzeen gaineko txostena eta jarraipena egitea.

5.- Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuari igortzeko Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketarik, hirietako zuhaitzen babesa eta sustapena ere jasotzeko?

Hirietako zuhaitzen babesa eta sustapena Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak emandako eskumenetik kanpo daude, legean jarduketa mugatzen baita oihan lurretara, alegia, landa-lurrak, hiri-lurrak ez direnak, landare espezie edo landare multzoen horniturikoak, non eta, ez nekazalgintzaren ezaugarri, ezta horren xede ere, ez diren.

Hirietako zuhaitzen babesa eta sustapena Nafarroako toki entitateen eskumena dira.

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 11ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 1an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza jaunak honako formulazioarekin aurkezturiko idatzizko erantzunerako galderei (10-21/PES-00206) dagokienez:

1.- Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuak zenbat minutu eta zer hizkuntzatan erabili zituen minutu horiek 2020ko ekitaldian? Eta 2021ean, galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

2.- Departamentuak nola kontrolatu du kontratatu diren 7.400 itzulpen-minutuen kontsumoa?

3.- Zer balorazio egiten da zerbitzu horren inguruan? Ekitaldi honetarako edo 2022korako berritzeko asmorik ba al da?

Hona hemen erantzuna:

2020an ez zen inongo minuturik erabili. Dualiarekiko kontratua minutuen arabera denez, erabili gabeko denbora hurrengo urtean erabil daiteke.

2021eko ekainaren 14ra arte 2.075 minutu erabili dira. Jarraian, erabilitako denbora (segundotan) eta hizkuntzak azaltzen dira.

Data	Erabiltzaileak	Hizkuntzak	Denbora (seg)	Emaitza	Zenbakia
2021/06/13, 14:52:03	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	208	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/13, 14:40:02	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	369	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/11, 19:48:57	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	385	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/09, 11:06:33	Harrera-baliabideak	ARABIERA KLASIKOA	1055	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/08, 11:21:23	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	769	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/08, 10:55:09	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	323	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/07, 13:50:31	Iruña	BULGARIERA	531	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/07, 12:25:46	Valtierra	MAROKOKO ARABIERA	434	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/04, 18:49:18	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3688	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/04, 17:37:47	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	1655	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/04, 10:09:21	Tuterako gizarte-zerbitzua	WOLOFERA	550	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/04, 8:41:48	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	475	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/03, 13:03:32	Harrera-baliabideak	MAROKOKO ARABIERA	571	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/03, 12:58:14	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	191	Servicio OK	xxxxxxxxxxx
2021/06/03, 12:18:12	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	875	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/02, 12:02:02	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	211	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/06/02, 11:53:10	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	393	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/31, 8:50:55	Iruña	MAROKOKO ARABIERA	759	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/28, 17:36:44	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3374	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/28, 16:32:02	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	463	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/28, 14:44:31	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	979	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/27, 12:16:43	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	294	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/26, 18:43:00	Egonaldi ertaineko baliabidea	INGELESA	272	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/26, 17:15:35	Egonaldi ertaineko baliabidea	INGELESA	1137	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/25, 11:56:54	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	2105	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/25, 10:23:19	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	372	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/24, 8:34:07	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	394	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/22, 16:38:49	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	1303	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/21, 18:48:00	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3574	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/21, 17:35:55	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3219	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/21, 17:32:17	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/21, 11:06:12	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	1062	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/21, 7:41:46	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	437	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/19, 13:46:39	Valtierra	MAROKOKO ARABIERA	4152	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/19, 10:38:52	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	2716	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/19, 10:06:32	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	191	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/18, 13:35:13	Valtierra	MAROKOKO ARABIERA	876	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/18, 12:36:03	Corellako Oinarrizko gizarte zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/18, 12:09:31	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	1048	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/18, 11:01:30	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	361	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/18, 9:47:23	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	822	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/17, 14:19:50	Valtierra	MAROKOKO ARABIERA	240	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx

2021/05/17, 13:16:21	Aiegi	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/17, 12:25:36	Aiegi	MAROKOKO ARABIERA	1607	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/17, 11:01:45	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELESA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/17, 10:58:58	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELESA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/14, 17:35:20	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3258	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/14, 11:39:38	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	1125	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/14, 10:02:54	Valtierra	MAROKOKO ARABIERA	770	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/13, 12:10:04	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	665	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/13, 11:26:50	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	350	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/13, 9:45:14	Burlata	BANBARA	982	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/12, 14:00:13	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	672	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/12, 13:51:23	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/12, 13:38:01	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	215	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/12, 13:26:44	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	666	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/12, 11:15:23	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	219	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/11, 13:11:58	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	390	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/10, 19:24:32	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	675	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/07, 19:21:15	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	438	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/07, 18:42:43	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	1995	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/07, 14:18:02	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	291	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/07, 10:21:36	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	2922	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/06, 12:22:16	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	573	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/06, 11:20:27	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	706	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/06, 11:00:54	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	641	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/06, 10:03:59	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	681	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/05, 16:18:33	Familia elkartzeko gunea	MAROKOKO ARABIERA	3332	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/05, 13:48:18	Tuterako gizarte-zerbitzua	WOLOFERA	547	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/05, 11:41:24	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	390	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/05, 10:19:31	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	1175	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/03, 13:49:04	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	1143	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/05/02, 18:04:01	Egonaldi ertaineko baliabidea	INGELESA	1586	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/30, 14:22:39	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	221	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/30, 11:32:12	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	1426	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/30, 9:13:09	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	714	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/29, 18:46:13	Egonaldi ertaineko baliabidea	INGELESA	1801	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/29, 13:59:08	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	353	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/29, 13:33:58	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	533	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/29, 11:15:04	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	421	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/29, 9:54:02	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	1222	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/28, 12:41:42	Burlata	MANDARIN-TXINERA	1203	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/27, 14:54:14	Tuterako gizarte-zerbitzua	BRASILERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/27, 11:54:22	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	530	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/26, 14:25:46	GIBLIT Tuterako Talde mugikorra	MAROKOKO ARABIERA	572	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx

2021/04/26, 9:30:11	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	816	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/23, 11:12:39	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	585	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/23, 10:25:36	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	1069	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/22, 19:17:09	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	549	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/22, 18:07:29	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/22, 9:49:03	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	255	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/21, 11:58:13	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	263	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/21, 11:42:02	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	946	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/21, 11:02:00	OGZ Tuterako Udala	MAROKOKO ARABIERA	1591	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/21, 10:36:01	OGZ Tuterako Udala	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/20, 17:06:19	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	223	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/20, 12:47:21	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/19, 18:00:01	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	306	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/19, 10:29:43	GIBLIT Tuterako Talde mugikorra	MAROKOKO ARABIERA	530	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/19, 9:10:51	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	384	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/16, 14:09:27	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	661	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/15, 9:22:45	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	2736	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/14, 13:27:06	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	218	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/13, 16:04:42	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	243	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/13, 12:25:29	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	1451	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/13, 10:19:48	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	940	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/12, 13:17:02	Egonaldi ertaineko baliabidea	ARABIERA KLASIKOA	180	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/09, 12:42:49	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	658	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/09, 10:03:29	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	353	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/08, 13:58:14	Corellako OGZ	MAROKOKO ARABIERA	369	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/07, 12:35:02	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	634	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/07, 10:22:50	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	511	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/07, 9:51:08	GIBLIT Iruñerria	INGELES	60	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/04/04, 12:48:14	Egonaldi ertaineko baliabidea	MAROKOKO ARABIERA	465	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/30, 12:47:08	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	667	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/26, 10:22:44	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	576	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/26, 9:58:29	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	253	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/25, 13:44:05	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	179	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/23, 11:07:30	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	2999	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/22, 13:42:53	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	1271	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/22, 10:18:23	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	1539	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/17, 11:04:34	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	500	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/15, 11:49:50	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	2275	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/12, 12:55:52	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	390	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/12, 12:46:33	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	67	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/12, 12:44:06	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	125	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/12, 9:04:47	Tuterako gizarte-zerbitzua	FRANTSESA	339	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/09, 12:36:04	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	377	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx



2021/03/08, 12:13:05	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	645	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/05, 12:39:44	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	861	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/03/01, 12:52:23	OGZ Tuterako Udala	INGELES	60	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/26, 12:56:03	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	483	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/26, 10:20:08	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	365	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/23, 12:07:53	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	4275	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/19, 14:21:53	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	392	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/19, 10:01:11	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	953	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/18, 12:45:55	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	674	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/17, 12:16:24	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	1125	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/16, 10:42:55	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	762	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 14:32:30	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	622	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 14:21:45	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	962	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 14:17:50	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	67	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 13:56:36	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	61	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 12:43:54	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	333	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 12:25:16	Tuterako gizarte-zerbitzua	MAROKOKO ARABIERA	377	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 11:59:06	Castejongo OGZ	MAROKOKO ARABIERA	512	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/15, 9:13:35	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	228	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/12, 10:27:54	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	307	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/12, 10:26:08	Tuterako gizarte-zerbitzua	SONINKERA	60	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/12, 10:09:37	Tuterako gizarte-zerbitzua	INGELES	120	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx
2021/02/04, 13:54:45	Tuterako gizarte-zerbitzua	FULA	60	OK zerbitzua	xxxxxxxxxxx

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusian uneoro jaso daiteke zerbitzu bakoitzerako erabilitako denborari eta hizkuntzei buruzko informazioa, Dualia programaren webgunearen bidez, enpresak inolako ziurtagiri espezifikorik eman gabe.

Erabileraren asteroko jarraipena egiten da, eta dei luzeagoak atzematen direnean baliabidearekin harremanetan jarri eta Kultura arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren berri ematen zaio, jakin dezaten zerbitzu espezifiko hori eskura dagoela, hizkuntzaren arloko egoera hutsetik harago kulturaren arloko alderdiak ere dauden kasuetarako.

Dualian alta emanda dauden zerbitzuen eta baliabideen aldetik balorazioa oso ona da. Egokitzat jotzen da Nafarroako Gobernuak zerbitzu hori eskaintzea herritarrei bideratzen zaizkien baliabide guztietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## Galdera, errenta bermatuaren jasotzailei Estatuak ordaindutako diru-kopuruari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak errenta bermatuaren jasotzailei Estatuak ordaindutako diru-kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 11ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak zenbat diru ordaintzeari utzi dion, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jarri zenez geroztik, errenta bermatuari legokiokeen diru-kopuruaren parte bat Estatuak ordaintzearen ondorioz (10-21/PES-00207). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzearen ondorioz Nafarroako Gobernuak errenta bermatua bideratzen ez dituen zenbatekoen zenbatespena honako hau da:

Urtea	Hilabetea	Zenbatekoa
2020	Uztaila	748.140.31
	Abuztua	748.140.31
	Iraila	748.140.31
	Urria	748.140.31
	Azaroa	748.140.31
	Abendua	748.140.31
	<i>Guztira</i>	<i>4.488.841.86</i>
2021	Urtarrila	748.140.31
	Otsaila	756.246.42
	Martxoa	1.115.722.79
	Apirila	1.509.391.38
	Maiatza	1.558.219.00
	Ekaina	1.920.239.23
	<i>Guztira</i>	<i>7.607.959.13</i>

Edonola ere, zenbaki horiek ezin dira aurrezki "garbi" gisa ulertu Nafarroak, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, ekarpena egin beharko duelako, dagokion zatian, Espainiako prestazio orokorraren gutzitiko kostua ordaintzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 2an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca



## **Galdera, Cidacos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Zidakos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 11ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galera egin du Zidakos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruz. (10-21-PES-00208). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.- Departamentuaren ustez, zeri zor zaio Aragoi ibaiaren behealdeko lurpeko uretako nitratoak nabarmen eta etengabe igotzea, ur horiek larriki kutsatuta egotearaino?

– Lurpeko uren kontrolerako sare osoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak zein Nafarroako Gobernuako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak egiten dituzten jarduketak barne hartzen dituenak, erakusten du nitratoen arazo bat dagoela Ebroko eta ibaiadarretako alubioietan. Horien garapena ongi jasotzen du Nafarroako Gobernuaren lurpeko uren kontrolerako sareak. Funtsean gertatzen da nekazaritzan ongarrizteko praktikak erabiltzeagatik eta, ziur aski, nekazaritza areagotzeoengatik (ekoizpen handiagoa hektarea bakoitzeko).

2. galdera.- Ohartzen al da Departamentua Zidakos ibaiaren alubioiko lurpeko sei ur-estazioetatik bostetan kutsadura-atalasetik goiti zeudela 2020an nitrato-balioak (50 mg/l) eta gainontzekoak arriskuan zeudela (25 mg/l)?

– Bai, ohartzen da. Departamentuak lurpeko eta azaleko uren kalitatearen jarraipena mantentzen du, egun diren kontrolerako sare publikoen bidez.

3. galdera.- Departamentuak zeri egozten dio Martzillako arroaren hegoaldeko estazioetan nitratoen igoera nabarmena izatea ur freatikoetan?

– Lurpeko uren eta akuiferoen kutsadura lau-soaren arazo bat da; horregatik, konplexua da zehaztea kutsaduraren eragilea nor den, eta zer neurritan. Ziurrenik arrazoa izanen da, alde batetik, Zidakos eta Aragoi ibaien ibaiertzetako laboreen gehiegizko ongarriztapena eta, bestetik, urteetan zehar nitrato horiek zoruetan metatzea eta maila freatikoaren aldaketan arabera mugitzea.

4 galdera.- Aragoi ibaiaren behealdeko eta Zidakos ibaiaren azken tarteko lurpeko urek gorako joera nabarmen eta etengabea izan arren, joera hori ez da orokorra alubioi osoan, Ebro ibaiari lotutako estazioetako uretako nitratoen joera egonkorra eta are beheakoa baita, halako moduan non zenbait kasutan erreala baita leheneratzea. Departamentuak nola azaltzen du hori?

– Adierazi denez, arazo konplexua da, eta agerian jarri zen Europako LIFE Nitratos proiektua (<https://www.life-nitratos.eu/index.php/es/>) garatu zenean, Departamentuak eskatuta, 2011tik 2015era. Ditugun kontrol-puntuak emandako informazioaren portaera oso aldakorra da, eta alde nabariak agertzen dira, are gertuko puntuen artean ere; beraz, ez da zilegi ondorio ausartegiak ateratzea behar bezala ezagutu gabe gaian garrantzitsuak diren alderdiak.

5. galdera.- Ur freatikoetako nitrato-kopuruak gora egiteko joera nabarmen eta etengabea dauka eremu zehatz batzuetan (arazoa Murillon, Martzillan, Alesbesen eta Milagron ardatzen da). Departamentuaren ustez, zeri zor zaio zonakatze hori?

– Aurreko galderetan erantzun den bezala, arazo bat dago, ureztalurretako laboreen ongarriztapenarekin lotua, baita urteetan zehar lurzoruan metatutako nitratoekin ere. Kalitatea okerragotzea dator nekazaritzako praktikak aldatzetik, batera gertatzen ahal diren bi arrazoiengatik: alde batetik, ureztalur gehiago sortzea, eraldatzea eta modernizatzea, eta beste alde batetik ongari mineralen eta aziendek sorrarazitako ongari organikoen kudeaketa. Kontuan hartu behar da goranzko joera hori ez dela bakarrik gertatzen Aragoi ibaiaren behealdean. Kontrolerako sare

ofizialek joera hori beste eremu batzuetan jasozten dute, bereziki Nafarroako hegoaldean eta, oro har, Ebro Ibarren eremu osoan. Departamentuak ez du egokitzat jotzen ondorio ausartegiak ateratzea behar bezala ezagutu gabe gaian garrantzitsuak diren alderdiak.

6. galdera.- Kontuan izanda Ur azpiko urak kutsaduratik eta hondatetik babestea erregulatzen duen 2006/118/CE Zuzentarauak dioena –“Joera nabarmen eta etengabeak iraultzera bideratutako neurriak aplikatzeko abiapuntua izanen da kutsatzailearen metatzeak lurpeko uren kalitateari buruzko arauen balio parametrikoen % 75 egiten duen unea” (hau da, 37,5mg/l)– eta “Milagroko hornidura-putzu zaharra” estazioak, Alesbesko hornidura-putzuak, Martzillako Campobajo zundaketa-estazioak eta Zidakos ibaiaren arro ia osoak urteak daramatzatela maila horiek gaingiditzen, Departamentuak zer neurri hartu du edo hartzen ari da? Eraginkorrak eta aski direla uste al du?

– Lehenengo eta behin, adieraztea gaian indarra duen araudia, Nitratoen Zuzentzarautik eratorria, aplikatzen ari dela; egindako azken egintza administratiboa izan da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren 147/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez berrikusten baitira nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onesten baita.

– Arazo hori hobe ezagutzeko Departamentuaren aldetik garatzen ari den neurrietako bat da orain dela hiru urtetik Zidakos ibaiaren arroan Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua (INTIA) egiten ari den lana, nitratoen eta gatzaren metatzearen jarraipenerako, Nafarroako ubidearen urarekin berriki hasitako ureztatzetik abiatuta.

– Departamentuaren ustez aipatutako neurri horiek, eraginkorrak izaten ari badira ere, ez dira aski azaleko eta lurpeko uretan dauden nitratoen mailak aipatu araudiak ezarritako erreferentzia mailetatik behera egon daitezten.

7. galdera.- Eremu horretan hautemandako joerak irauli ahal izateko faktore erabakigarri bat da, zalantzarik gabe, urak egoera horretara eraman dituen arrazoi nagusia edo nagusiak identifikatzea, bestela ezinezkoa izanen bailitzateke akuiferoa leheneratzea. Hori horrela, Departamentuak zein uste du dela arrazoa eremu zehatz horretan?

– Lehenago azaldu den bezala, arrazoi nagusiak dira jatorri mineral eta organikoko ongarriztapenak, lurpeko uretan kutsadura lausoa eragiten dutenak.

8. galdera.- Departamentuak aztertu al du Martzillako, Alesbesko, Milagroko, Murillo el Cuendeko eta Caparrosoko azienden nitrogeno-ekarpenaren bilakaera?


Departamentuak gai horri buruz duen informazioa dator simaurra, mindak eta digestatua aplikatzearen erregistro liburuetatik, urtero aurkezten baitira hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, egiaztatze aldera betetzen ote den ustiategi bakoitzak bere ingurumen baimena betetzeko prestatu behar duen kudeaketa planak ezarritakoa. Informazioa gurutzatzen da SIGPAC-ENPGISen esku dagoenarekin, aplikazioa egiten den lurzatiaren nekazari ustiatzaileek deklaritzen dituzten laboreak direla-eta.

9. galdera.-Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpena asko areagotu da 2010etik hona, 2019an eremu osoan izan den nitrogeno-ekarpenaren % 30 egiteraino. Departamentuaren ustez, ekarpen hori al da eremuko nekazaritzan eta abeltzaintzan gertatu den aldaketarik nabarmenena?


– Departamentuaren ustez ez dago ziurtatuta Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpena denik eremuko nekazaritzan eta abeltzaintzan gertatu den aldaketarik nabarmenena. Behi-aziendaren simaurra, mindak eta digestatua udalerririk askotako lurzati ugarietan aplikatzen dira, ez eremu horretan bakarrik; beraz, galderan aipatutako portzentajea nabarmen txikiagoa izan liteke. Informazio gehiago behar dugu hori bezalako baieztapenak egin ahal izateko.

10. galdera.- Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpenak gorako joera etengabea dauka, Martzillako, Alesbesko, Milagroko eta Murilloko estazioetan lurpeko uretako nitratoan detektatutakoaren gisakoa. Hori horrela, Departamentuaren ustez, Aragoi eta Zidakos ibaien behealdeko ur freatikotako nitratoetan hautemandako gorako joerarekin zerikusia izan lezakeen faktore garrantzitsu bat izan al liteke hori?

– Aipatutako behi-aziendaren ustiategiaren zentsuari buruzko informazioa dago, eta 2017tik aurrera hazkundeak gelditu eta gaur arte egonkortu da.



– Gainera, informazioa dago lurrean aplikatutako digestatua likidoaren kopuruei dagokienez. 2011. eta 2011. urteetan igoera nabarmena izan ondoren, egonkortu egin zen.



– Behi-jardueraren eragina bazter utzi gabe, proposatzen den hipotesia ezin da berretsi modu orokorrean aztertu gabe gai honekin lotutako faktoreak, behar bezala ebaluatu ez direnak.

11. galdera.- Lurpeko uren sareari buruz Nafarroako Gobernuak 2020an egindako oroitidazkian, eremu horretan nitratoen igoera nabarmen eta etengabea gertatu dela identifikatutako estazioetatik hirutan soilik daude 2010a baino lehenagoko eta ondoko datuak. Estazio horietako joerak aztertuta ikus daiteke hiru estazio horien portaera oso antzekoa dela. Joeraren aldaketa bat ikus daiteke, Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpenaren igoerarekin bat datorrena. Martzillako hornidura-putzuaren estazioan ikus daitekeenez, 2009ra bitarte egonkor zirauten, edo jaitsi egin ziren gutxika-gutxika, nitrato-mailek. Jaitciera horren arrazoa izan liteke nekazaritza gutxika-gutxika albo batera utzi izana eta lurra industriara bideratu izana. Halere, 2010etik aitzina, Caparrosoko behi-azienda handitzearekin bat, nitrato-maila gora egiten hasi zen. Beste horrenbeste, edo are gehiago, gertatzen da Alesbesko putzuan, non nitrato-mailaren goranzko joera nabarmena izan baita 2010etik aitzina. Nabarmendu beharra dago 2009ra bitarte nitrato-mailak konstanteak edo are beheranzkoak zirela, balioen bat 50mg/l-tik beherakoa zela, eta 2010etik aitzina hasi zirela nitratoen balioak gora egiten urtez urte, 100mg/l-tik gora egoteraino. Azkenik, Milagroko hornidura-putzu zaharreko lurpeko uretan, nitrato-mailen goranzko joera oso nabarmena da 2010etik aitzina, eta azpimarratu beharra dago Caparrosoko behi-azientatik heldu den nitrogeno-igoeraren datuak soilik hartuz ia bikoitza dela batez besteko igoeraren eritimoa: 6,59mg/l-ko igoera urte bakoitzean, joera orokorra 3,94 mg/l-koa den bitartean. Datu ofizial horiek ikusita, zer azalpen edo interpretazio egiten du Departamentuak datu horiei guztiei buruz eta Caparrosoko azientan hazkunde oso handia gertatu zenez geroztik izandako bilakaera negatiboari buruz?

– Aurreko galderari emandako erantzunetan aipatzen den bezala, konplexua da lotura ukaezina ezartzea Caparrosoko behi-aziendaren kopurua handitzearen eta lurpeko uretako nitratoen mailetak goranzko joeren artean. Lehenengo eta behin, ongarri organikoa (digestatoa) beste udalerri batzuetako lurzati askotan banatzea, aztertzen ari garen eraginpeko eremutik kanpo, nekazaritzako jardunbide egokien aplikazioaren ustea eta Aragoi ibaiaren akuifero alubialeko uren kutsaduraren izaera lausoa, ziurgabetasun ugarrirako faktoreak dira, interpretazio ukaezina ezar-terakoan.

– Zalantzarik gabe, nitratoaren igoeraren bilakaera ageria da Aragoi ibaiaren bi ertzeetako kontrol-puntuetan nahiz eta, modu intuitiboan, Caparrosoko behi-aziendaren digestatoaren aplikazioaren eragina askoz txikiagoa izanen zen eskuineko ertzean ezkerrekoan baino.

12. galdera.- Departamentuaren ustez, zer harreman dago Caparrosoko azienta handitu izanaren eta eremu horretan ingurumen-ukipenak agertu izanaren eta eremuko lurpeko uretan aldi berean nitrato-mailen joera aldatu izanaren artean?

– Digestatoa gaizki aplikatzearen ondoriozko ingurumen-ukipenak egiaztatu dira 2021eko otsailean. Hala ere, ez dugu uste gertaera horrek zerikusia duenik lurpeko uretan nitrato-mailetan atzemandako joera aldaketarekin. Ongarrien kopuruak, edozein jatorritakoak, nitrato-mailen joera aldaketa abiarazi ahal izateko, handiagoak eta denboran luzatuak izan beharko lirarteke.

13. galdera.- Departamentuak zer neurri hartuko ditu eremu horretako lurpeko uretan nitratoaren agerpen altu eta arriskutsua aldatzeko?

– Gaur egun jarraipeneko programa bat sustatzen ari da egoerari gehiago doitzen zaion diagnostiko bat egiteko, programa zehatz eta erregular bat eginez, kontrolatze aldera ongarri organikoen aplikaziorako kudeaketa planean burututako operazioak. Helburua da era integralean ebaluatzea digestatoaren aplikazioa eta lurrazpiko uraren kalitatea hurbileko ingurunean eta beste eremu batzuetan, areago arriskuan daudela ulertzen bada. Nekazaritzan eta abeltzaintzan eskumena duen administrazioarekin elkarlanean jardunen da, behar diren jarduketa-neurriak areagotzeko.

14. galdera.- Departamentuak Marcilla Viva kolektiboak egindako “Análisis de la evolución del promedio anual de nitratos en las masas de agua subterráneas de los aluviales Aragón-Ebro y Zidakos (Navarra). Identificación de las tendencias ascendentes y posibles causas” txostenaren berri al du: Zer iritzi du horretaz? Bat al dator txostenean emandako ondorioekin?

– Egileek ez diote bidali Departamentuari aipatu txosten hori. Horren berri izan dugunean, idaztizko galdera honen bidez, interneten bilatu dugu eta egiaztatu dugu zati batzuk, iturria aipatu gabe, erabili direla honako honetan:

Martzillako Udalak aurkeztutako alde aurreko errekerimendua, Ingurumeneko zuzendari nagusiak martxoaren 12an emandako 222E/2021 Ebazpenaren aurka, zeinaren bidez Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL enpresari ematen zaion ingurumen baimen inte-

gratua eta lurzoru urbanizaezineko ingurumen-eraginaren adierazpena, esnetarako behi helduen kopurua handitzeko, 3.450 abelburutatik 7.200 abelburutara (aziendarako 12 pabilioi) eta biome-tanizazio plantaren funtzionamendua araubide termofilora aldatzeko.

– Marcilla Viva kolektiboaren agiria aztertuta, aitortu behar da ahalegindu dela eremuko lurrazpi-ko uren nitratoen metatzea igo izanaren jatorria ulertzen, baina Departamentuak baditu desadostasun batzuk eta, laburbilduz, kausa-efektu erlazio sendoak ezartzeko informazio anitza eduki behar dela eskura.

– txostenean bildutako kontrol-puntuak ikusita, nitratoaren igoerak izan litezke ere, zati batean uretzalur gehiago edo intentsiboagoak modernizatzearen edo ezartzearen ondoriozkoak. 2009. urteaz geroztik uretzalur bihurtutako nekazaritzako azaleraren igoera handia guttiz kontuan har-

tzekoa da nitratoen metatzearen igoera azaltzeko. Ongarri mineralak zein organikoa etengabe erabiltzea eta zorueta eta uretan metatzea, hamarkada bat baino luzeago, izan daitezke egungo egoeraren arrazoiak. txostenak azkarregi ondorioztatzen du honako hau: “beraz, eskura ditugun datuak direla-eta, ez dirudi nekazaritza eta ongarri kimikoen erabilera denik arrazoi nagusietako bat, Zidakos ibaiaren arroko hegoaldean eta Aragoi ibaiaren behealdeari lotutako estazioetan lurrazpi-ko uren nitratoen metaketa igotzeari dago-kionez. Izan ere, datuek ez dute erakuste gaur egun arteko bilakaera goranzko eta etengaberik, nitratoen metaketan, ordea, atzematen dena”. Baieztapen hori ez da zuzena, hain zuzen ere 2019. urtean iritsi zelako Nafarroan hektarea bakoitzeko gehitutako nitrato kopuruaren batez bestekoaren gehieneko baliora. (Iturria: Ingurumen Zaintzarako Plana 2020 Nafarroa LGP 2014-2020)




Gráfico 5: Evolución del consumo de fertilizantes por hectárea de SAU.

– Azaldu den bezala, aipatutako behi-azienda-ren ustiategiaren erroldari buruzko informazioa dago, eta 2017tik aurrera horren hazkundera gelditu eta gaur arte egonkortu da.

Iruñean, 2021eko ekainaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-  
tseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 11ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegiaren ziurtagiri ekologikoari buruz (PES-00209). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietateak Departamentuan, INTIA enpresa publikoan edo Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluan (CPAEN- NNPEK) izapidetu al du espedienterik, esnearen nahiz esnekien edo behi-haragiaren ekoizle ekologikoaren ziurtagiria jasotzeko?

Ekoizpen ekologikorako kontrol-agintaritzaren adostasun-marken erabilera zuzena zaintzeko prozeduraren arabera, honako gorabehera hauek egiaztatu ditugu, Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietatearen arau-haustea izan daitezkeenak:

- Enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzen dela hauteman da.
- Egiaztatu da ez dela operadore gisa ageri CPAEN-NNPEK kontrol-agintaritzak ziurtatutako operadoreen erregistroan.

Egiaztatu dugu merkataritza-sozietatearen publizitate-liburuxka batean Caparrosoko (Nafarroa) Valle de Odieta SCL abeltzaintza-ustiategia identifikatzeko "BIO" terminoa erabiltzen dela, zeina ekoizpen ekologikoan ziurtatutako produktuetara mugatuta baitago.

Produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 (EE) Erregelamenduaren IV. tituluaren 23. artikulua, ekoizpen ekologikoari buruz-

ko terminoen erabilerari dagokionez, adierazten du erregelamendu horren ondorioetarako, produktu batek ekoizpen ekologikoko metodoari buruzko terminoak dituela, baldin eta etiketan, publizitatean edo merkataritza-dokumentuetan, produktua, haren osagaiak edo animaliak elikatzeke lehengaiak deskribatzean, erosleari iradokitzen badiote produktua, haren osagaiak edo animaliak elikatzeke lehengaiak aipatutako erregelamenduan ezarritako arauen arabera lortu direla.

Bereziki, erregelamenduan adierazitako terminoak, haren deribatuak edo laburdurak, hala nola "bio" eta "eco", bakarka edo konbinatuta, produktu baten etiketatze eta publizitaterako erabili ahal izanen dira, produktu horrek indarreko araudiak ezarritako baldintzak betetzen dituenean.

Ekoizpen ekologikoari buruzko terminoen erabilera mugatuta dago, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren 23. artikulua arabera; izan ere, artikulua horrek berriaz adierazten du termino horiek ezin direla Europar Batasuneko ezein puntutan erabili, ez eta Europar Batasuneko ezein hizkuntzatan ere, erregelamendu horretan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten produktuen etiketatze, publizitate eta merkataritza-dokumentuetarako.

2.- Europako Batzordearen 2008ko irailaren 5eko 889/2008 Erregelamendua –zeinak Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko 834/2007 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen baititu, ekoizpen ekologikoaren etiketatze eta kontrolaren inguruan– zenbait baldintza ezartzen ditu produktu bat ekologikoa dela edo abeltegi bat bio-abeltegia dela ezartzeko. Departamentuaren ustez, Valle de Odieta SCLk ustiatzen duen abeltegiaren instalazioen estabulazioak, elikadurak eta hazkuntzak baldintzak baldintza horiek betetzen al dituzte?

Caparroso herrian dagoen Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietateak dituen abeltzaintzako instalazioetan estabulatzeko, elikatzeke eta hazteke baldintzek ez dituzte betetzen Batzordearen 2008ko irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamenduan behi-espezieari aplikatu beharreko ekoizpen-arau espezifikoak, batez ere animalia ekologikoen jatorriari dagokionez 8. artikuluan aipatutakoak, abereentzako ostatatze-baldintza espezifikoari buruzko 10. artikulua, 11. artikulua ugaztunentzako berriazko ostatu-baldintzei eta hazkuntza-metodoei dago-



kienez, edo 14. artikulua aire zabaleko guneetarako sarbideari buruz.

2021eko ekainaren 17an, ohartarazpen bat igorri zitzaion enpresari, eta ohartarazi zitzaion deskribatutako arau-hausteak larri gisa tipifikatzen direla Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituei eta adierazpen geografiko babes-tuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikuluan 1. apartatuaren f) letraren eta k)

letraren arabera, ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera..

Iruñean, 2021eko uztailaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-00210), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Nafarroako Gobernuak noiz eratuko du Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea?

Nafarroako Gobernua, Nafarroako Gazterien Institutuaren bidez, zirriborro bat lantzen ari da, zeinean oinarrituko baita Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea eratuko eta arautuko duen araua. Batzordea aurreikusita dago Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen 6.3.c) artikuluan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazterien arloan lankidetzaren administratiboa izateko organo gisa, Aurreikuspena da agiri hori prest egotea 2021eko azken hiruhilekoan.

2. Nortzuk egonen dira batzordean?

Balitzko erakunde parte-hartzaileen artean aztertzen ari diren aukerak dira Nafarroako Gazterien Institutua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen

Federazioa, udal arloko ordezkartza, gaiaren gaineko garrantziaren eta ordezkagarritasunaren iritziei jarraikiz, eta Nafarroako Gazterien Kontseilua.

3. Kontuan hartuta pandemia-egoeran gaude-la, Nafarroako Gazterien Institutuak aisialdiko zer jarduera eskainiko dizkie gazteei uda honetan?

Nafarroako Gazterien Institutuak ia osorik berreskuratu du pandemiaren aurretik zuen udako eskaintza, eta uda honetarako programa eta jarduera ugari eskainiko ditu, 3.000tik gora gazte baliatu ahalko dituztenak. Gazteen aisialdira bideratutako eskaintza osoa egokituta dago COVID-19ari aurre egiteko osasun arloko gomendioak eta betebeharrak bermatzeko.

Jarduerak, 350.000tik gora euroren aurrekontuarekin, Nafarroako Gazterien Institutuari ahalbidetzen diote bere apustua berrets dezan, hezkuntza- eta erkidego-aisiaren alde, gazteen garapen eta hazkunde pertsonalerako gisa, alderdi ludikoa ere kontuan hartuta, gazteei aisiarako aukerak eskainiz ezohiko uda honetan.

Nafarroako Gazterien Institutuak erabaki du uda honetan mantentzea egun bateko jarduerak, joan den urtean pandemia-dela eta antolatu zirenak. 1.000tik gora postu dira, egunean joan-etorria egiteko txangoetan, jarduera ezberdinak egiteko Nafarroako natur-inguruneetan: Nafarroako Bela Eskolan, Allotzen bela, paddle-surf eta kayak praktikak; Baztanen multiabentura (Beartzungo arroila, megatirolinak, via ferrata); Irisarri Land parkean jardunaldia (lgantzi) eta Irunberriko arroilan jaitsiera baltsa pneumatikoan eta uretako gymkana.

Programa hori garatuko da gazte-entitateen bidez eta bertan parte hartu ahalko dute 14tik 30era bitarteko gazteek, 15 euroren truke (jardueraren benetako kostuaren % 25, gutxi gorabehera) aire zabaleko jardunaldi batean. Nafarroako Gazteriaren Institutuak bere gain hartzen du kostu osoa, garraioa, jarduera eta hura egiteko behar den materiala barne.

Joan den urtearekiko berritasun nagusia da aire zabaleko kanpaldiak baimenduko direla eta gazteen boluntarioritza guneak garatuko direla. Gogora daitekeenez, COVID-19aren pandemiaren aurrean eta prebentzio neurri guztiak betetzeko zailtasuna ikusirik, Nafarroako Gobernuak 2020an eten egin zituen aire zabaleko kanpaldietarako baimenak eta bertan behera utzi zituen boluntarioritza guneak, autonomia-erkidegoekin eta Nazioarteko Boluntarioritza Zerbitzuarekin elkarlanean antolatutakoak, gazte mugikortasuna sustatzen baitzuten.

Kanpaldien garapena jasotzen da Osasuneko kontseilariaren 19/21 Foru Aginduan. Bertan biltzen diren baldintzen artean dago parte hartuko duten gazteak ez izatea 60 baino gehiago, eta monitoreen eta parte-hartzaileen arteko ratioa 1etik 8ra bitartekoa edo txikiagoa izatea. Gainera bi kanpaldi mota ezartzen dira. Alde batetik %100 mugi daitezkeen instalazioetakoak: baimenduko dira baldin eta pabiloi motako dendetan soilik ematen bada gaua, eta parte-hartzaile bakoitzari 4 metro koadroko azalera badagokio. Beste alde batetik, kanpaldiak instalazio mistoetan, zati bat finkoa eta bestea mugigarria dutenetan: baimenduko dira baldin eta osasun agintariak ezarritako edukierak errespetatzen badira eta zati mugigarria pabiloi motako dendak badira eta ratioa parte-hartzaile bakoitzeko 4 metro koadrokoa bada. Instalazio mistoetan beste aukera hau ere onartzen da: beste kanpadenda mota bat erabiltzea, baldin eta denda bakoitzeko pertsona bakarra sartzen bada eta adinez nagusia bada. Berriz, etenda gelditzen dira abuztuaren 22ko 107/2005 Foru Dekretuaren bidez arautzen diren administrazio baimenak, zeharkaldiak egitekoak.

2020an ez bezala, aurten gazteen boluntarioritza guneetarako postuak eskaintzen dira, baina ez dira eskainiko nazioarteko tokietarako. Nafarroan, uztailan eta abuztuan, boluntarioritzako sei gune garatuko dira, 150 posturekin, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean. Hain zuzen, sei guneetatik lau, adinez nagusientzat dira: bi Bargotako monasterioko

indusketa arkeologikoa, bat Bertizko jaurrean ingurumeneko izaerarekin, eta beste bat Eugin, Nafarroako Pirinioetako muga gotortuko bunkerrak berreskuratzeko. Gainerako bi guneak 15 urtetik 17ra bitarteko adin txikikoei zuzentzen zaizkie: bat Urbanan, Ingurumenarekin lankidetzan, eta beste bat Nafarroako Pirinioetako muga gotortuan, Lesakan.

2021a urte Xacobeoa da eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak berreskuratu egin du Xacobeo Gaztea programa, aurrekoetan ere urte santuagatik garatu zena. Gaur egungo egoerari egokituta, Nafarroako gazteek Donejakue bidea zeharkatu ahalko dute kulturaren ikuspegiarekin. Orreagatik abiatuta, etapak txandakatuko dira autobuseko ibilbideekin, toki esanguratsuei bisitak eginez.

Halaber, Europako Gazte txartelaren programazioan sartu ahalko dira txartelaren titularrak; uztailaren 1etik aurrera hasiko da. Jarduerak aurreko urtekoen antzekoak izanen dira: surfa, urpeko igeriketa, multiabentura edo kartinga Nafarroako Zirkuituan.

Eskaintza kulturalari dagokionez, dagoeneko deskontu-kodeak eskatzen ahal dira "Clásica Plus" Nazioarteko Musika Jaialdira edo Flamenco On Fire Jaialdira joateko. Erriberriko Antzerki Jaialdiaren XXII. edizioa uztailan izanen da eta txartelak salgai daude dagoeneko. Abantaila bat eskaintzen die Gazte txartelaren tituludunei, sarretan eta abonuetan % 50eko deskontua eginda.

Gainera, udan zehar Nafarroako hainbat herritan prestakuntzako jarduera egingen dira NGJE-Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolaren bidez, gazteen bizitzan hezkuntza ez formala bultzatzeko ardura baitu. Proposamenean bultzatzen dute gazteek parte hartzea, dela boluntarioritzaren arloan, dela naturako lehen sorospentetan. Halaber, Barne Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzarekin, motozikletak era seguruak gidatzeko ikastaroak egingen dira, trafiko istripuen prebentziorako neurri gisa. Era berean, udan zehar, aisialdiko monitoreak gaitzeko ikastaroak programatu dira, Nafarroako Gobernuak aitortutako Aisialdiko Eskoletan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 23an

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria Javier Remírez Apesteguía



## **Galdera, lurzoru urbanizaezinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak lurzoru urbanizaezinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak 10-21/PES-00211 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutetako, honakoa: udalez gaindiko proiektu sektorial gisa onetsiak izanik, eskubide osoz egindako ordezpena dela-eta orain lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimena behar duten zer proiektuk baliatzen ahal dute 45E/2021 Foru Aginduan ezarritako luzapena? Nortzuk dira horien sustatzaileak eta zer herritan daude?. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

2021eko maiatzaren 14ko 112. NAO n argitaratu zen 45E/2021 Foru Agindua, maiatzaren 6koa, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatzen baita parke eolikoetarako baimena Nafarroan arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen indargabetzailearen 2. atalean ezarritako epea, hau da, udalez gaindiko proiektu sektorial gisa onetsiak izanik, eskubide osoz egindako ordezpena dela-eta orain lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimena behar duten parke eolikoak egin eta abian jartzeko ezarri zena. Bertan honako hau ezartzen da:

“Beste hiru urtez luzatzea udalez gaindiko proiektu sektorial gisa behin betiko onetsi ziren parke eolikoak egin eta abian jartzeko ezarritako epea, hain zuzen, eskubide osoz ordeztuak izan

ondoren orain lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimena behar dutenak, halaxe xedatu baitzen Nafarroan parke eolikoetarako baimena arautu zuen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren 2. atalean. Luza-pen horren ondorioz, epe hori bost urtekoa izanen da gehienez.”

Beste alde batetik, parke eolikoetarako baimena Nafarroan arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuak (2019eko maiatzaren 16ko 94. NAO), lehenengo xedapen indargabetzailean (Udalez gaindiko proiektu sektorialak azkentzea), honako hau ezartzen du:

“1. Foru dekretu honek indarra hartzen duenean, azkendu egingen dira parke eolikoak ezartzeko behin betiko onespina duten udalez gaindiko proiektu sektorial guztiak.

2. Foru dekretu honek indarra hartzen duenean osotara edo zati batean gauzatu gabe dauden udalez gaindiko proiektu sektorialak, foru dekretu honetan ezarritako lurzoru urbanizaezineko jarduera baimengarrien baimenek ordeztuko dituzte eskubide osoz.

Baimen horiek titularra gaitzen dute parke eolikoak egin eta abian jartzeko gehienez ere bi urteko epean foru dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera.”

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilariaren maiatzaren 6ko 45E/2021 Foru Agindua eman zen egunerako udalez gaindiko proiektu sektorial gisa onetsita eta ingurumen baimena irautsi gabe duten parke eoliko bakarrak dira San Marcos I, San Marcos II, Linte eta Jenáriz, “Nafarroako Proiektu Eolikoak” izeneko Udalez gaindiko Proiektu Sektorialean aurreikusita, zeina Agrowind Navarra 2013 SLk sustatua den eta Nafarroako Gobernuaren 2018ko urriaren 3ko erabakiaren bidez onetsia (2018ko urriaren 22ko 204. NAO).

Onetsitako Udalez gaindiko Proiektu Sektorialearen arabera, proiektu horrek ukitutako udalerririk honako hauek dira:

	SAN MARCOS I	SAN MARCOS II	JENÁRIZ	LINTE
Aerogeneradores	Lerín y Oteiza	Larraza	Miranda de Arga	Larraza y Berbinzana
Camino de acceso	Larraza y Lerín	Larraza y Lerín (por compartir infraestructuras con PE San Marcos I)	Miranda de Arga	Larraza, Berbinzana, Miranda de Arga
Canalizaciones eléctricas	Lerín, Oteiza y Larraza	Larraza	Miranda de Arga	Larraza, Berbinzana, Miranda de Arga
Subestación eléctrica	Larraza	Larraza (comparte infraestructuras con PE San Marcos I)	Miranda de Arga	Miranda de Arga
Tendido eléctrico de evacuación	Larraza, Berbinzana, Miranda de Arga, Falces, Tafalla y Olite			

Hori da Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariaren maiatzaren 6ko 45E/2021 Foru Aginduak ezarritako luzapena baliatzen ahal duen proiektu bakarra.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 21ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin txomi González Martínez jaunak Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00212) zeinean “informazioa eskatzen baitu Osasun Departamentuko zuzendaritzako langileen lan-jardunaldiei buruz”. Hona

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

1. Osasun Departamentuak zergatik ez die departamentuko langileei eurei agindu, arlo horretan adituak baitira, lan-jardunaldiak garatzea eta osasun-estrategia definitzea?

Zuzendaritzako langileen lan-jardunaldien helburu nagusietako bat izan da eta da, hain zuzen, osasun-estrategia berreguneratzea eta lehenetsia pandemiaren inpaktuaren eta ikasbideen argitan eta esparru edukita legegintzaldirako akordioa eta helburu estrategikoak, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu direnak eta ezagutzen direnak. Bilatzen dena da O-NOZeko eta Osasun Departamentuko goi-zuzendaritzako taldeari ahalbidetzea gogoeta, eztabaida eta ekarpena egitea estrategia hori definitzeko. Baina ezaugarri horiek dituen bilera garrantzitsu baten emaitzak ahalik eta onenak eta handienak izan daitezzen erabili dena izan da (egin ohi den moduan) adituen kanpo lantalde

bat, metodologiaren aldetik jardunaldien garapena erraztuko dutenak eta bilatzen diren helburuak lortzen lagunduko dutenak.

2. Zer administrazio-prozedura baliatu da jardunaldi horiek Mutua MC enpresari kontratatzeke/esleitzeko? Zer baldintza-agiri baliatu da jardunaldiak kontratatzeke eta nola egin da aukera ezberdinen ar-teko hautaketa, baldin eta aukera bat baino gehiago egon bazen?

Ez da egon jardunaldi horiek kontratatzeke/esleitzeko administrazio-prozedurarik, ezta baldintza-agiririk edo hautaketa modurik ere, aipatu enpresarekin ez delako izan inolako harreman formal edo informalik. Horren gaineko harreman bakarra da esperientzian, ezagutzan eta gure erki-degoarekiko konpromisoan maila berezia duen aditu batek une honetan erreferentziako enpresan ari dela profesional gisa. Eta bere oporraldiko egun bat erabiliz, eskuzabaltasunez lagundu du erreferentziako zuzendaritzako langileen bilerak errazten.

3. Zer justifikazio-txosten egin da jardunaldiak egitea onesteko?

Ez dago justifikazio-txostenik, aurreko puntuan azaldu den bezala, ez dagoelako zer justifikatu Administrazioaren ikuspuntutik.

4. Zer kostu ekonomiko izan du Mutua MC enpresak egindako jardunaldi horiek antolatzeak?

Aurretik argitu den bezala, jardunaldiak ez ditu enpresa horrek garatu. Izan ere, enpresa horrekin —berriz diogu— Osasun Departamentuak ez du harreman txikiarik ere izan. Edonola ere, jardunaldien kostua 3.172 eurokoa da, kontzeptu guztiak barne (instalazioen alokairua, ekipamen-dua eta guzti, atsedendietako kafeak eta otamenak, parte-hartzaile guztiei ekainaren 5ean emandako bukaerako aperitiboa, Foru Komunitatetik kanpoko talde erraztaileko hiru pertsonen egonaldia, aipatu

hiru adituen bidaiak eta kanpoko talde erraztaileko kide Alacanteko Unibertsitateko katedradunaren ordainsariak). Gaur egun, gehitzeko geratzen dira bakarrik Bartzelonatik (BCN/PNA/BCN) etorritako bi adituen kilometroen eta bidesarien gastuak.

5. Honako hauen kopia: jardunaldi horiek Mutua MC enpresari kontra-tatzeko/esleitzeko baliatutako administrazio-prozedura, eta jardunaldiak kontratatzeke baliatutako baldintza-agiria eta aukera ezberdinen arteko hautaketa egiteko modua, baldin eta aukera bat baino gehiago egon bazen.

Aurretik adierazi den bezala, nola ez den egon kontrataziorik/esleipenik, ezta aipatu enpresarekiko inolako harreman formalik ere, ezin da egon horri buruzko inolako administrazio-prozedurarik.

6. Zer justifikazio-txosten egin da jardunaldiak egitea onesteko?

Aurretik aipatutakoarekin bat eta haren ondorioz, ez da horri buruzko inolako justifikazio-txostenik egon.

7. Mutua MC enpresak egindako jardunaldi horiek antolatzeak izan-dako kostu ekonomikoaren faktura.

Egin diren zuzendaritzako langileen jardunaldien gutzizko kostuaren faktura xehakatuak erantsi dira. Berriz ere argituta jardunaldiak ez dituela egin aipatzen den enpresa horrek, Nafarroako Gobernuak Osasuneko Departamentuak baizik. Eta horrekin batera, kanpoko lau adituen lankidetzatza ordainezina izan da. PEI-00557an erantsi dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak duen protokoloari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak duen protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du parke eoliko eta fotovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak duen protokoloari buruz (PES-00213). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ematen dion erantzuna:

1.- Departamentuak onetsitako protokoloaren arabera, ezin zitzairen baimenik eman protokoloaren arabera gisa horretako energia-sorkuntzako parkeak hartzerik ez duten nekazaritza-azalera ukitzen dituztelako?

Lehenengo eta behin, aipatutako protokolo hori zirriborroaren fasean dago.

Bigarrenik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du energia berriztagarrien parkeen ezarpena baimentzeko eskumenik; lotesleak ez diren txosten sektorialak ematea besterik ez du egiten, administrazioko beste unitate batzuek bezala, nekazaritzako lurzorurekiko ukipenaren ingurukoak, instalazioak baimentzeko eskumena duten unitateek eskatuta, hau da, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eskatuta.

2.- Departamentuak ureztalur diren lurra edo azalera ukitzen dituzten parke eoliko eta fotovoltaiko berrien proiektuen baimenen aurka informatuko al du? Gobernuan une honetan izapidetzen ari diren zer proiekturi eraginen lioke ureztalurren gaineko muga horrek?

Departamentuak informazioa ematen du eta emanen du, ezarritako irizpideei eta, behin onetsiz gero, protokoloari jarraikiz, ureztalurreko edo lehorreko lurzoruan gertatzen diren ukipenen arabera. 2021ean zehar eman diren ureztalurren ukipenen txosten sektorialak ondotik datorren taulan agertzen dira:

<b>UREZTALURREN ETA LURZATI BERRANTOLAMENDUAREN ATALARI ESKATUTAKO TXOSTENAK, HAIZE- ETA EGUZKI-PARKEEKIN LOTUAK</b>			
<b>Herria</b>	<b>Instalazioa</b>	<b>Sustatzailea/eskatzailea</b>	<b>Ukipena ureztalurrean</b>
Buñuel	Transformazio zentroa, PSF Pestriz eguzki instalaziorako	EÓLICA NAVARRA SL	Bateragarria
Garinoain / Mendigorria	Eguzki-instalazio fotovoltaikoa	SOLARIA PROMOCIÓN Y DESARROLLO FOTOVOLTAICO SL	Bateraezina
Corella	PE El Montecillo parke eolikoa	ENERFIN SOCIEDAD DE ENERGÍA SL	Bateragarria
Milagro	HUAko eguzki-instalazioa	NAVARRA DEINFRAESTRUCTURAS LOCALES SA	Bateragarria
Fontellas, Murchante, Tutera, Ablitas	Volatin txostena argitzea	ENERFIN SOCIEDAD DE ENERGÍA SL	Bateraezina
Cortes	PSF Atalaya eguzki-parke fotovoltaikoa	RIOS RENOVABLES SL	Bateraezina
Buñuel	PE Pestriz parke eolikoa	EÓLICA PESTRIZ, S.L.	Bateragarria
Corella	PSF IFV Corella eguzki-parkea	CHILOS SOLAR 2 SL	Bateraezina
Corella	PSF Navas eguzki-parkea	CHILOS SOLAR 2 SL	Bateragarria
Erriberri	PSF La Falconera-parkea	CARCAR GAYA A,ESCALERA GALAR E,I,ESCALERA LANDIVAR F, NUIN VALENCIA J	Bateragarria
Ablitas	Eguzki-instalazioa	ABLITASKO UREZTATZAILA SINDIKATUA	Bateragarria
Cascante	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (I. fasea)	ENEL GREEN POWER ESPAÑA S. L. U.	Izapidetzen ari da
Larraga eta Berbinzana	PE Linte II parke eolikoa	AGROWIND NAVARRA 2013 SL.	Bateragarria
Cascante eta Murchante	PSF El Sasillo eguzki-parke fotovoltaikoa	SOLEN ENERGÍA NAVARRA S.L.U.,	Bateragarria
Ablitas eta Tudela	PSF SET Tudela promotores LAT SET Tudela	EDP RENOVABLES ESPAÑA SL	Bateraezina
Ablitas	PSF Tudela I eguzki-parkea	EDP RENOVABLES ESPAÑA SL	Bateraezina
Ablitas	EGUZKI-PARKEA PSF Tudela II	EDP RENOVABLES ESPAÑA SL	Bateraezina
Fitero eta Cintruénigo	PE Los Chopos (EIA) parke eolikoa	ENEL GREEN POWER ESPAÑA S.L.U.	Bateragarria
Mendigorria, Obanos, Eneritz, Adios, Ukar, Biurrun eta Tebas-Muru-Artederreta	"Serena Solar 5",eguzki-instalazio fotovoltaikoaren proiektua	Solaria Promoción y Desarrollo Fotovoltaico S.L.U.,	Bateraezina
Tutera	"LA NAVA" eguzki-instalazio fotovoltaikoa	SOLEN ENERGÍA LA NAVA, S.L.	Bateraezina
Cascante	PE Vientos del Cierzo (EIA) parke eolikoa	MARIA ROSA JASO LITAGO	Bateragarria

<b>UREZTALURREN ETA LURZATI BERRANTOLAMENDUAREN ATALARI ESKATUTAKO TXOSTENAK, HAIZE- ETA EGUZKI-PARKEEKIN LOTUAK</b>			
Ribaforada	PSFV TUDELA proiektuaren bideragarritasuna	Generadora Eléctrica Green II	Bateraezina
Uxue, Galipentzu, Eslaba eta Lerga	PE Templarios parke eolikoa	GREEN CAPITAL POWER SL	Bateragarria
Cintruénigo eta Corella	Corral de Escudero 71,50 MW-ko parke eolikoa TT.MM		Bateragarria
Erriberri eta Tafalla	PSF ABETO NEW ENERGY (EIA) eguzki-parke fotovoltaikoa	ABETO NEW ENERGY, S.L.	Bateragarria
Uxue eta Pitillas	PE LOS CORRALES (EIA) parke eolikoa	GREEN CAPITAL POWER SL	Bateragarria
Corella	P.S.Fv Guardian	Suno Energía 4 S.L.	Bateragarria
Corella	P.S.Fv Cierzo	Suno Energía 4 S.L.	Bateraezina
Lodosa	PSF Alba renova (EIA) (EIA) eguzki-parke fotovoltaikoa	SOLAR FOTOVOLTAICA NAVARRA SL	Bateraezina
Lodosa	PSF Alba Lamparilla (EIA) (EIA) eguzki-parke fotovoltaikoa	SOLAR FOTOVOLTAICA NAVARRA SL	Bateraezina
Artaxoa	PE Akermendia parke eolikoa	ENERFIN SOCIEDAD DE ENERGÍA SL	Izapidetzen ari da
Corella /Tutera	Eguzki-parke fotovoltaikoa	BUGANVILLA SOLAR PV SL	Bateraezina
Castejón	PE Castejón parke eolikoa	ALERION SPAIN SL	Izapidetzen ari da
Cintruénigo, Corella eta Tutera	PE Cirbonero parke eolikoa	ALERION SPAIN SL	Bateragarria
Tutera	PSFV TUDELA 1 proiektuaren bideragarritasuna	Generadora Eléctrica Green II	Bateraezina
Tutera	Eguzki-instalazioa punpatze-lanetarako	SASO PEDRIZ UREZTATZE SINDIKATUA	Izapidetzen ari da
Tutera	"Tutera 1", eguzki-instalazio fotovoltaikoaren proiektua	Generadora Eléctrica Verde II	Izapidetzen ari da
Tutera	"Tutera 2", eguzki-instalazio fotovoltaikoaren proiektua	Generadora Eléctrica Verde XII	Izapidetzen ari da
Castejón	"Castejón I" eguzki-instalazio fotovoltaikoaren proiektua	Rigel 860 Energías SL	Izapidetzen ari da

3. -Departamentuaren arabera, Gobernuan une honetan izapidetzen ari diren parke eoliko eta fotovoltaiko berrien zer proiekturi eraginen lioke, 64/2006 Foru Aginduan ezarritakoa aplikatuz, parke fotovoltaikoak paratzeko debekuak?

64/2006 Foru Agindua, hirigintzari eta ingurumenari buruzko alderdiak arautzen baditu ere, onetsi zenean zeukan eskumen-egitura ez da gaur egun daukana. Hortaz, gaur egun diren ingurumeneko eskumenen arabera, aplikazio partziala Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari legokioke, baina ez ureztalurreko edo lehorreko lurzoruan duen ukipenagatik, ingurumenaren gaineko ukipenagatik baizik. Baimentzea edo debekatzea, edonola ere, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari dagokio. Beraz,

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ezin dio galdera honi erantzun.

4.- Protokolo horrek Nafarroako hainbat udal-tako mendietan paratu nahi diren parke eolikoei eraginen al lieke? Ezezkoan, Departamentuak ba al du beste protokoloren bat onesteko asmorik, gisa horretako energia-sorkuntzako parkeak titulartasun publikoko mendietan paratu nahi diren kasurako?

Bai, horiei guztiei eragiten die. Udalen mendiak ere titulartasun publikokoak dira, komunalak edo ondarekoak.

Iruñean, 2021eko uztailaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkatuen Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkatuen Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioak aurkeztutako 10-19/ PES-00215 informazio-eskaera/galdera idatzia dela eta, honako informazio hau ematen du Hezkuntzako kontseilariak:

– Desgaitasuna duten seme-alabak dituzten familiak eskoletan, dauden baliabideekin, arreta nahikoa eta egokia jasotzen ari dira eskoletan. Behar diren langile espezializatuak dituzte (Haur

Hezkuntzako irakasleak, Pedagogia Terapeutikoa, Entzumena eta Hizkuntzakoak, fisioterapeutas, Hezkuntza Laguntzako espezialistak...), zeinek erantzuna egokitzen duten ikasleek aurkezten dituzten beharrezkoen arabera.

– Nafarroako elkarte-mugimenduko entitateek arreta ematen diete hala eskatzen duten familiei, beraiek eskatzen dutelako. Zenbait egoeratan badirudi inoiz ez dela aski izaten, eta arazo ezberdinen aurrean saiatzen da ahalik eta aukera gehien bilatzen.

– Itzarote-zerrenda egoteak adierazten du norberak, salbuespenezko egoeretan, gure seme-alabekiko dugun eskari eta aurreikuspen maila altua. Beharrezkoen arabera gogoeta iritsi behar da ikasle horiekin jarduten duten eragile guztien erantzun amankomun batetik, baina familien erabakia da eskola eremutik kanpo egiten diren jarduerak.

Iruñean, 2021eko uztailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi



## Galdera, Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzun dakion aurkezturiko 10-21/ PES-00217 zenbakiko galdera dela-eta, zeinaren bidez jakin nahi baitu:

2021eko ekainaren 9ko 137. EAO, COVID-19aren ondorioz garraio publikorako emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratu zen. Hartan, Iruñerriko Mankomunitateari 7.726.049,92 euroko dirulaguntza eman zaio (diru-sarreraren % 40).

1. Nafarroako Gobernuak eskaerarik egin al zuen? Zein?

2. Ezezkoan, zergatik?

3. Ba al dakizue Nafarroako Foru Komunitatean beste eskaerarik egon ote zen? Zein?

4. Ezezkoan, ba al dakizue zergatik ez zen eskaerarik egin?

Horri erantzuteko honako hau argitu beharra dauka: lehenengo eta behin, aipatu dirulaguntza Estatuaren eskumenekoa dela eta jaso dagoela ekainaren 8ko 407/2021 Errege Dekretuan, zeinak arautzen baitu dirulaguntzak zuzenean ematea garraio publikoaren zerbitzua ematen duten toki entitateei.

Azpitarratu behar da aldez aurretik, Ogasuneko estatu-idazkaritzaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez, zeinak jarraibideak ematen baititu toki entitateek garraio publikoaren zerbitzua ematearen inguruko informazioa helarazteari buruz, dokumentazio jakin bat eskatzen zitzaiela

garraio publikoaren zerbitzua ematen dituzten toki entitateei.

Aipatu ebazpenak jasotzen duenaren arabera, bere xedea da “ezartzea prozedura eta igortzeko epea, bai eta behar den informazio finantzarioa, toki entitateek hiriko edo hiriarteko garraio publikoaren zerbitzu ematek eratorria, eskatzeko inprimakien edukia ere. Informazio hori oinarria izanen da zehazteko etorkizunean zuzenean dirulaguntzak emanen ote zaizkien aipatu zerbitzua edozein modalitatetan eman duten toki entitateei. Hori zehaztuko da, kasua denean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorraren esparruan, kontuan hartuta, ondorio horietarako, pandemia sortu den ekitaldiaren, hau da, 2019aren, aurre-aurreko ekitaldia”.

Bigarrenik, zehaztu behar du aipatu dirulaguntza ez dela bideratzen erabilera orokorreko hiriarteko bidaiarien garraio publiko erregularrera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumena baita, baizik eta hiriko eta eskualdeko garraiora, toki entitateen eskumena baita, edo kasu honetan bezala mankomunitateena.

Hala ere, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren aldetik komunikazio arin eta etengabea eduki da une oro Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarekin, COVID-19aren epidemiaren ondoriozko bidaiari-kopuruaren jaitsiera eta mugikortasuna murrizteko neurriak direla-eta bidaiarien garraio publikora bideratutako balizko laguntzei eta dirulaguntzen inguruan.

Nafarroako Foru Komunitateetik egindako eskaerei dagokionez, adierazi behar da Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusia harremanetan jarri zela Iruñerriko Mankomunitatearekin eta Tuterako Udalarekin, informatze aldera dirulaguntzen deialdiari buruzko informazioa emateko, entitate horiek onuradun izan daitezkeelako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 19an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez



## **Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00218 galdera idatzia egin du Barañaingo Auditorioa Fundazioarekin izandako bilerei buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2021eko apirilaren 27an, asteartearekin, bilera bat egin zen, zeinean ondoko hauek parte hartu baitzuten:

Nafarroako Gobernuaren aldetik

– Rebeca Esnaola, Kultura eta Kiroleko kontseilaria

– Lorenzo García Echegoyen, Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria

Barañaingo Udalaren aldetik

– María Lecumberri, Barañaingo alkatea

– Pablo Arcelus, Kultura zinegotzia

– Francesca Ferrer, idazkaria

Barañaingo Udalak aurkeztutako gaiak izan ziren Barañaingo Auditorioaren etorkizuna eta instalaziorako konponbideari begirako balizko aukerak. Gaiak bileran eztabaidatu ziren, baina ez zen inolako akordiorik itxi.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko uztailaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 18ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00219 galdera idatzia egin du Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Egoitza aldatzeko arrazoia da Nafarroako Orkestra Sinfonikoak egonkortasuna behar duela, Atarrabiako egoitzak eskaintzen ez zuena, jarduera zehatz guztiak garatu ahal izateko. Atarrabiako Udalarekiko hitzarmena datorren abenduaren 31n amaitzen zen, eta apirilaren 8an Atarrabiako Udaleko kulturako teknikariak Baluarte Fundazioaren zuzendari kudeatzaileari adierazi zion zailtasuna zegoela hitzarmena berritzeko, beste bi urtez luzatzeko eskaintza egin bazuen ere. Zehazki,

aipatzen zen arazo bat zegoela Nafarroako Orkestra Sinfonikoan lan egitea bateragarri egiteko Kultur Etxearen berezko jarduerekin eta herriko kultur kolektiboaren barneko erabilerekin, beste hitzarmen bat sinatzea galarazita. Atarrabiako Udalak helarazitako inguruabar horiek direla eta, Baluarte Fundazioak egokitzat jo zuen epe luzeago bati begirako aukera bilatzea, eta harremanetan jarri zen Barañainekin, ezagutze aldera beharizan horiei konponbidea emanen zion hitzarmen bat itxi ahalko zen.

2021eko irailaren 1etik aurrera, eta hamar urteko eperako, 2031ko abenduaren 31ra arte, Barañain Auditorioa izanen da Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza. Gainera, konpromiso bat hartzen da kontuan, kultura, gizarte eta hezkuntza esparruetan eragina izanen duten proiektuak elkarren artean garatze aldera, itunak eginez eta jarduera pedagogikoak programatuz.

Baluarte Fundazioarentzat Barañain Auditorioa erabiltzeak dakarren urteko kostua Atarrabiako Kultur Etxean zuen bera da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko uztailaren 19an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Galdera, AgoraLan guneari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak AgoraLan guneari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 24ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du AgoraLan proiektuari buruz (1021/PES-00220). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Agoralan Gazteriari buruzko III. Foru Planean (2021-2023) sartutako ekimena da. Ekintza hori Nafarroako Gazteriaren Institutuak sustatzen du eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua-ekin batera (hemendik aurrera NL-NEZ) antolatzen da. Erakundearen esparruan, programa hori profil profesional teknikoak garatzera zuzendutako Lidera Programan kokatzen da. Aipatu programa NL-NEZren gastuen aurrekontuko honako partida honekin finantzatu da: 950002-96200-2276-242102 "Suspertu Plana. Prestakuntza programe-tarako asistentzia. Sektoreko konferentzia" izen-koa.

Proiektua ekainaren 14an hasi zen, abian jarri-ta gazte enplegurako foro bat; bertan proiektuaren

hasiera bateko aurkezpena egin zen eta gaiak, alderdiak eta ideiak identifikatu ziren. Foroak diseinatzen duen lan-proposamenetik abiatuta, finkatu eginen dira egutegia, lan-saioak eta garatu beharreko eginkizunak eta neurriak, behar bezala kuantifikatuta.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak honako hauei egin die gonbit gazte enplegurako foroan parte hartzeko: NL-NEZ, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendari Nagusiak, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusia, NUP, toki entitateak, Gazteriaren Kontseilua, sindikatuak, nekazaritza-elkarteak, enpresa-entitateak, ekonomia soziala ordezkatzen duten entitateak, Laneratze eta Gizarteratze Zentroen Elkarteak, Nafarroako Fundazioen Elkarteak, ekonomia solidarioko entitateak eta entitate sozialak eta hirugarren sektorea ordezkatzen dutenak.

Foroak lan eginen du gazte enpleguarekin lotutako hainbat kontutan, esate baterako: ekin-tzailletza eta autoenplegua, laneratzeko aukerak, lan-baldintzak eta -eskubideak, ardurakidetzak, prestakuntza eta hezkuntzarako neurriak, komunikatzeko bideak, eta abar.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 13an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Car-men Maeztu Villafranca

## **Galdera, Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 29ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00221). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak galdera horri erantzunez eman beharreko informazioa:

Profesional salatzailearen arduradun hierarkikoek jarduketa proportzionatuak eta jarraituak egin dituzte, eta honela laburbil daitezke:

Nafarroako Ospitaleguneko Arlo Kardiologikoren eremuan, argitzeko bilera bat, zeinaren bukaeran bertaratuek aho batez adierazi duten Arloko inongo profesionalak ez duela salaketan adierazitako kobrantzarik izan, baita aho batez onartu ere irregularrak izango liratekeela.

Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritzaren eremuan, eta Hemodinamika Atalean gatazka profesional bat dagoela ulertuta, bitartekotza profesionaleko ekintzak SPLRren kargura eta, ondoren, kanpoko enpresa baten kargura.

O-NOZko Profesionalen Zuzendaritzaren esparruan, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaritzaren laguntzan, aholkularitza eta informazio erreserbatuko espedienteak hasteko gomendioa, aurreko neurriek porrot egin dutela egiaztatu ondoren.

Ustezko gertakariak Fiskaltzari ez helarazteko arrazoiak denborazko eta prozedurazko bi gairekin daude lotuta.

Lehenik eta behin, hasierako unean salatutakoaren frogetan oinarritutako zantzurik ez zegoe-lako, salatzaileari eskatu zitzaion arren.

Bigarrenik, geroago jakin zelako, Osasunbide-tik hasitako "informazio erreserbatuko" espedienteak ebatzi aurretik, Arartekoak Fiskaltzari igorriak gertakariak, eta, beraz, prozesua irekita eta abian zegoela.

Osasun Departamentuak, nolana ere, erakunde judizialaren esanetara dago behar den guztian laguntzeko, eta, aldi berean, barne-ikerketako prozesu sakon bat egin eta amaitu du aipatutako informazio erreserbatuko tresnaren bidez, bere ondorioekin. Horren betearazpena bide judizialaren ebazpenaren zain dago.

Salaketa jarri duen medikuarekin izandako bilerak lan-eremuko eta antolaketa-mailako aldarrikapenei buruzkoak izan dira nagusiki.

PES 000174ri emandako erantzunean azaldu-tako bilera, 2020ko martxoan egin baitzen, Profesionalen Zuzendaritzari eskatu zion ELA sindikatuak. Bilera horretan, Nafarroako Ospitalegunearen barruan ebakuntza-gelan lan egiten zuen egunak aldatzen ari zirela planteatu du.

2020ko uztailaren 23an egindako bileran, gertakariak salatu zituen medikuak, profesionalen zuzendariak eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileak parte hartu zuten, eta medikua bertaratu zen, abokatuak lagunduta, eta adierazi zuen kontsultak esleitzen ari zitzaizkiola San Martín Dokto-rea zentroan, bere lankideen gainetik, kaltetuta sentitzen zela eta Bihotzaren Arloko aginte-egitura osoa etetea eskatu zuen: Zuzendaria, zerbitzua-burua eta atalburuak.

Bi bileretan, salatutako gertakariak aipatu ditu, eta gertaera horiek egiaztatzen dituzten grabazioak dituela baino ez du adierazi, baina behin eta berriz uko egin dio horiek emateari.

Horregatik, salatutako gertakarien eta ustezko erantzuleen berri frogaturik ez dagoenez, funtzionario salatzaileak egiaztatu gabeko adierazpenak salbu, eta alde aurreko barne-jarduketekin, Hemodinamika Zerbitzuari materiala hornitzen dioten merkataritza-etxeen fakturazioa egiaztatzea barne, horien artean irregulartasunik egon dela pentsarazten duen desberdintasunik ikusi gabe, ustezko gertakariak Fiskaltzari ez igortzea erabaki da.

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzua lanean ari zenez, lehentasuna eman zaio profesionalek beren lanaren esparruan dituzten harremanak

zaintzeari, bide ezberdinetatik. Horien artean, nabarmentzekoa da Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari kudeatzaileak kanpoko enpresa bati egindako enkargua, esku hartze-errazte prozesu bat gauzatzeko. Baliabide hori gatazka psikosozialak sortzen diren zerbitzu edo departamentuetan erabiltzen da, erakundetik kanpoko eragile batek esku hartzea ahalbidetzen baitu, arazoa diagnostikatuz eta irtenbideak inpartzialtasunez planteatuz.

Ondoren, aipatutako grabazioak – geroago informazio erreserbatuko prozeduraren instruktoreari eman zitzaizkionak – ezta salatutako egitateak egiaztatzeko beste inolako frogarik ere oraindik eskuratu gabe, jakin zen medikuak Arartekoari kexa bat aurkeztua ziola, eta hari O-NOZri behin eta berriz ukatu zizkion grabazioak eman zizkiola, eta Arartekoak jarduketak Fiskaltzari helarazi zizkiola. Halaber, jakin zen Iruñeko Instrukzioko 5. Epaitegiko magistratu-epaileak, 2020ko azaroaren 25eko autoaren bidez, erabaki duela aurretiazko eginbideak abiaraztea, horien sekretua deklaraturik; horiek instruitzen ari direla ulertuta, O-NOZ, nola ez, organo judizial horren esku dago.

Hemodinamika Ataleko antolaketa-aldaketak, ukitutako funtzionarioei 2021eko uztailaren 1ean jakinarazitakoak, ez daude lotuta ustezko delituen salaketarekin.

Aldaketa horien justifikazioaren oinarriak dira informazio erreserbatuaren prozeduran deskribatutako gatazka-egoera, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren txostenak, horretarako kontratatutako enpresak esku hartzek-errazte prozesuari buruzko txostena eta Bihotzaren Arloko Zuzendaritzak berak emandako informazioa.

Aldaketek bi profesionali eragiten diete; horietariko bat mediku salatzailea da, zeinari bere lanbide-kategoriari dagozkion eginkizunak esleitzen zaizkion Nafarroako Ospitaleguneko Kardiologia Zerbitzuan. Eragindako beste profesionalak utzi egin dio Hemodinamika Ataleko buru izateari, eta berak ere bere lanbide-kategoriari dagozkion eginkizunak mantendu ditu.

Bihotzaren Eremuan, eta bereziki Hemodinamikan, lan egiteko talde-jarduketak egin behar dira, baina egungo egoerarekin ezinezkoa zen, eta osasun-sistemaren betebeharrak nagusia da ahalik eta arreta onena eta pazienteen segurtasuna bermatzea, pertsonen arteko gatazka-egoerek, ematen ari direnak kasu, osasun-laguntzaren kalitatean eragitea saihestuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 28an

Osasun kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 29ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00222), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

1. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei? Ikasle horiek nazioartean mugitzeko beka horiek guztiak mantendu eta baliatu ahal izanen dituztela bermatuko al duzue, COVID-19aren aurkako txertoaren muga arazo izan gabe?

2. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa gaixo kronikoei? Adina izanen al da irizpide bakarra txertoa jartzeko?

3. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa mendekotasun handia onartu ez zaien desgaituei? Adina izanen al da irizpide bakarra txertoa jartzeko?

Horri erantzuteko, ondoko informazioa ematen dugu:

1.- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dagozkion zerrendak jaso ondoren, ekai-

naren amaieran hasi zen hitzorduak ematen Foru Komunitatean borondatezko lankideak, Erasmus nazioarteko ikasketa-programan parte hartzen duten ikasleak eta gisako egoeretan dauden beste pertsona batzuk txertatzeko, Estatuko txertaketa-estrategiaren azken eguneraketan jasotako jarraibideen arabera. Pertsona horien txertaketa uztailan garatzen ari da.

Zehazki, kolektibo horiek jasota daude aipatutako Estatuko txertaketa-estrategiaren 8. eguneratzean, 9. puntuan. Bertan zehazten denez, "Txertaketa gomendatzen den biztanleria-talderen batean dauden nazioarteko bidaiariak txertatuko dira", eta, besteak beste, honako baldintza hau ezartzen da: "3 astez baino gehiagoz bidaiatzea" eta "laneko, ikasketetako edo ezinbesteko araziengatik".

2.- Departamentua lanean ari da gaixotasun kronikoak dituzten pertsona guztiak txertatzeko. Talde hori osatzen duten pertsona gehienek txertaketa egina dago jada, gaixotasun horiek adin-faktorearekin lotzen direlako. Une honetan —gogora dezagun—, 16 urteko adinera arte txertatzen ari da, oro har.

3.- Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka % 65etik gorako adimen-desgaitasuna duten pertsonen txertoa jartzea, mendetasun handia aitortuta ez badute ere. Aurreko kasuan bezala, talde hori osatzen duten pertsona gehienek txertaketa egina dago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 28an

Osasun kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## **Galdera, eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak Nafarroako eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 29ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00224), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu "Errioxarekiko hitzarmena dela-eta Diario de Navarran argitaratutakoari buruz". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1. Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak titular hori berresten al du?

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ez ditu baloratzen komunikabideetan agertutako titularrak, eta lotzen zaio Foru Komunitateak 2009az geroztik elkarrekiko osasun-arretaren esparruan Errioxako Autonomia Erkidegoarekin duen hitzarmena berritzearen ondorioz egindako prentsa-oharrean emandako informazioari.

2. Hitzarmen horri esker Errioxan foru erkidegoko biztanleei emanen zaizkien osasun prestazioen artean ba al dago prestazio zehatz berririk? Baiezkoan, zein da zehatz-mehatz eta nori emanen zaio?

Alde biko akordioaren berritze honen berritasun nagusia da Nafarroak Errioxako pazienteei emandako laguntza espezializatua zabaltzea Bihotzaren Arloari dagokionez, zehazki Bihotzeko Kirurgia Konplexuan. Akordio horren bidez, zerbitzu birtual bakarra eratuko da kirurgia mota hori behar duten pazienteei arreta emateko, irizpide komunetan oinarritutako bideratze-protokolo zehatz bat betez. Protokolo horretan, Nafarroako Ospitaleguneko eta Errioxako San Pedro Unibertsitate Ospitaleko zerbitzuek parte hartuko dute.

Ildo horretan, bi ospitaleetako profesional sanitarioek osatutako talde mistoak koordinatu egingen dira helburu horretarako, aldi behingo saio bateratuak, online eta/edo presentzialak, eginez, pazienteentzako asistentziarik egokiena zehazteko; diziplina anitzeko saioak egingen dira bi erkidegoetako Bihotzaren Ataleko zerbitzuen artean.

Bi erkidegoek batera duten populazio-bolumena dela-eta – milioi bat biztanle inguru –, bihotzeko kirurgia-espezialitate honetako lankidetzak osagarriak Nafarroako eta Errioxako biztanleen kalitatezko osasun-laguntza hobetu eta bermatuko du, maila goreneko zerbitzu espezializatuak izan ditzaten ahalbidetuz.

Gainera, akordio berri honek proposatzen du lankidetzak-protokoloak berritzea erreferentziazko teknikak eta zerbitzuak behar dituzten beste patologia batzuetan. Horrela, Foru Komunitateari dagokionez, bere osasun-zerbitzuek erreferentziazko zerbitzu gisa jardunen dute espezialitate hauek: Anatomia patologikoa (muskulu-biopsiak eta autopsien azterketa neuropatologikoa soilik), neurokirurgia (bizkarrezurreko patologia izan ezik), neuroradiologia eta erradiologia interbentzionista, kirurgia traumatologikoa (pelbisaren haustura konplexua) eta kirurgia plastikoa (linfedema mastektomia).

Bestalde, akordioak jarraitzen du ezartzen Errioxak osasun-arreta emanen diela Logroñoeko San Pedro Ospitalean Vianako eta Arasko biztanleei, eta Hospital Calahorra Fundazioan San Adriango osasun eskualde oinarritzako herri mugakideetako biztanleei (Andosilla, Azagra, Cárcar eta San Adrian), Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzako osasun laguntzako medikuek bideratutako pazientei, orain arte egingen zen bezala. Gainera, Hospital Calahorra Fundazioak larrialdietako ospitale-arreta eta erradiologia sinpleko zerbitzuak emanen dizkio San Adriango osasun eskualde oinarritzokari.

Era berean, testu berriak kasuan kasuko larrialdi-zerbitzuen arteko lankidetzak estua aurreikusten du. Lankidetzak horren bidez, eskura dauden baliabideak koordinatzen dira, arreta eraginkorragoa eta efizienteagoa emateko, eremu mugakideetan denboraren menpeko larrialdiak direnean (iktus kodea, infartua, trauma larria, sepsia, etab.). Jadanik dagoen laguntza hori garatzeko, Nafarroako Ospitalegunea eta Errioxakoa lotu-

ko dituen informazio- eta komunikazio-sistema bat ezarriko da. Bi erkidegoek informazioa trukatuko dute zerbitzu berrien edo teknologia superespezializatuen ezarpen koordinatua planifikatzeko, bi ospitaleetan zerbitzu-zorro orekatua eta bikaintasunezkoa bermatzeko.

Bestalde, hitzarmenak barne hartzen du Logroñoko San Pedro Ospitalean laguntza espezializatu ematea Viana eta Aras udalerrietako pazienteei eta Hospital Calahorra Fundazioan Azagra, San Adrian, Andosilla eta Cárcar udalerrietako pazienteei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzako medikuek bideratzen badituzte.

O-NOZek zehaztu eta ezarriko arreta espezializatu horretatik bere herritarrei Nafarroako Foru Komunitatean dituen erreferentzia-zentroetan emango dien zatia. Ez dira kontuan hartuko Errioxako Osasun Zerbitzu Publikoak beste autonomia-erkidego batzuetara bideratzen dituen kasuak, erkidegoan zerbitzu propioak edo itunduak ez izateagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 27an

Osasun kontseilaria: Santos Induráin Orduna